

Goierri

364. zenbakia
2009ko uztaialak 3



Fermin Aramendi eta Joxe Mari Apaolaza

TOURREKO KONTALARIAK

ALTAMIRA
JATETXEA

Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net

reklone



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria
18. zenbakia zure esku



Igerileku garaia

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,

Itsasondo eta

Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Xabier Mendiguren Elizegi.

5. Ingurugiro txokoa: Begi-niniak zabaltzen direnean (II).

6. Euskara txukuntzen: Denetik (XXIII)

8. Aholkua: Ordenagailu eramangarri txiki merkea.


9. Elkarrizketa: Fermin Aramendi eta Joxe Mari Apaolaza.

16. Erreportajea: Aizkorriko aterpeak 75 urte.

20. Musika: Haritz Artola, Fiachras Bizarduna.

23. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabier Mendiguren Elizegi

Polizien txostena beste frogarik ez dago, baina poliziaren bitzaren kontra zure bitza besterik ez duzunean, ez daukazu zereginik: harenak balio du.

Okerragoa ere izan zitekeen baina

Benetako kasua da, lagun baten seme-ari gertatua, ez dut esango non eta noiz baina.

Lau mutil gazte, etxe batean. Unibertsitateko ikasleak dira, eta estudiante-pisu batean bizi dira. Gaua da. Denak lotan. Bat-batean, polizia. Linterna-fokuak, oihiak, metraileta eta abarren zalaparta. Mutil gizajoak, izututa baino gehiago, kaka eginda. Haietako baten bila datoz poliziak, baina, gauzak errazago egiteagatik-edo, hartara ezkerro, laurak eraman dituzte berekin.

Polizia-etxera eraman dituzte denak. Benetan atxilotu nahi zutenarekin zer egin zuten, hori bai izan daitekeela dardarka hasteko modukoa, baina nik ez dakit, eta kontatu nahi dudanerako ez zaigu gehiegi ere inporta. Beste hirurak han eduki dituzte, ez hotelean bezain gozo, ez parrandan balebiltza bezain gustura, baina ez dituzte jo, eta horrenbestean konforme esan beharko.

Biharamunean askatu dituzte, eta esker-erak, pentsatzen du batek, oroitzapen txar bat geratuko zaie baina tira, hori besterik ez bada... Ez ba. Hor non jakin duten hiru mutikoeak, agintariaren kontrako atentatu eta erresistentzia-delituak egozten dizkietela, zergatik eta poliziak etxera sartu zitzaizkienean aurre egin zitelako. Aurre egin? Bota-muturretik kasko-puntaraino armatutako kankailu-koadrila bati? Nork sinetsi hori? Baina, noski, atestatua egin duen poliziak nolabait zurrutu behar, beren etxean eta ezeren errurik gabe lo zeuden hiru mutil zergatik eraman dituzten atxilo.

Salaketa egina dagoenez gero, justizia-administrazioaren gupila hasten da mar-

txan: diligentziak, deklarazioak eta bestelako buruzpideak (pelegrinazio horiek ezagutzen ez dituen hobeto dago horrela). Polizien txostena beste frogarik ez dago, baina poliziaren hitzaren kontra zure hitza besterik ez duzunean, ez daukazu zereginik: harenak balio du.

Epaiketa-eguna ipini dute eta fiskalak egin du bere eskaera: bi urte eta erdiko kartzela. Mutilak, ikaratuta. Abokatuak, hala ere, abisatzen die beharbada negoziatu ahalko duela. Eta halaxe gertatu da, epaiketarako izendatutako egun berean: akusatuek beren errua onartzearen truke, hamar hilabeteko zigorra eskatuko du fiskalak. Denek onartu dute leporatutakoa, eta epaiketarik egin gabe amaitu da auzia. Zigor horrekin ez da kartzelara joan beharrik (ondoren beste deliturik egin ezean), eta hiru mutil horiek kalean dira. Libre edo.

Makina bat historia tristeago ezagutu ditugu gure herrian, eta, horrenbestez, hau ondo antxean amaitu dela esan behar. Txarrenera jarrita, okerragoa ere izan zitekeen: ez zituzten torturatu, ez zuten epaiketa bitartean kartzelan egon behar izan, eta orain ere ez dute espetxea zapaldu beharko, bisitan ez bada.

Baina nork ukatu kasuaren injustizia handia? Imajinatu mutilen beldurra poliziak sartzen ikustean, komisarian pasatako gaueko estutasunak, haien larria epaiketa iritsi bitartean; eta orain bertan, aurrekari penaletan idatzita geratu da haien delitua, beraiek onartua gainera, horrek eduki ditzakeen ondorio administratibo guztiakin.

Gaitz erdi, kasu bakan eta bakarra baltz...

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Sagardotegiko menua
Jatetxea Kartak Sagardotegiko meua
© 943 88 77 26 ALTZAGA

Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble ajentzia

etxekin
www.etxekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Begi-niniak zabaltzen direnean (II)

363. zenbakiko hariari jarraituz, uda garaia oso aproposa da zerura begira jartzeko eta astronomiaz gozatzeko Kronologikoki uztailean ikus daitezkeen gauzarik bitxienak hauek dira:

- **Uztailak 1:** Siriusen konjuntzioa Eguzkiarekin. 12:45ean. kontuz! Bakarririk babesgarriekin ikus daiteke. (Sirius Eguzkiaren aurretik igarotzen da). Sirius zeruko izarrik argitsuenetako bat da. Eguzkitik 40^o hegoalde-
ra ikus daiteke.
- **Uztailak 4:** Lurra afelioan dago, hau da, Eguzkiarekiko distantziarik handiena. 152.091.174 km. Larunbata 2:00etan. Ilargia Messier 4 kumulo globularren aurretik igarotzen da. (Ezkutaketa), Scorpiusen. Antares izar-
raren aurretik ere igarotzen da. 3:45ean.
- **Uztaila 7:** Iluntzeko Ilargi-eklipsea, Amerika kontinentean ikusiko da. 4:38an. Ilargia betea. Eguzkitik distantzi txiki-
ena 2009ean, apogeoan. Txikia eta urrun ikusiko da. 4:22an.
- **Uztailak 8:** Marte, Artizarra eta Aldebaran (Taurusen izar distiratsuena) lerrokatuta egongo dira 5:35ean.
- **Uztailak 10:** Jupiter. Ilargiaren hegoalde-
tik zeharkatzen du. (Konjuntzioa). 5:30ean.
- **Uztailak 11:** Marte Pleiadekin konjuntzioan. 3:40an.
- **Uztailak 13:** Artizarra Taurusekin lerrokatuta. 5:30ean.
- **Uztailak 14:** Artizarra Aldebaranekin konjuntzioa. 5:30ean.
- **Uztailak 15:** Ilargia ilberheran. 4:56an.
- **Uztailak 16:** Ilargia Hamalen, Ariesen hegoaldean. 5:20an.
- **Uztailak 17:** Ilargia, Pleiadeak, Marte, Hyadeak eta Artizarra lerrokatuta. 5:10an.
- **Uztailak 18:** Ilargia, Pleiadeak, Marte, Hyadeak eta Artizarren lerrokatzea eta konjuntzioa ikus daiteke. 5:30ean.
- **Uztailak 19:** Ilargiaren alde iluna, errauts-argiak, argituko du. 5:00etan. Perigeoan dago, hau da, oso handia ikusiko da. Era berean, Ilargia konjuntzioan Artizarrekin.
- **Uztailak 21:** Eguzki eklipsea. Asiako hegoaldean ikusiko da. Aitzakia ederra. Asia ezagutzeko. 21:37etan. Ilberria. 21:23ean.
- **Uztailak 22:** Ilargia oso fina eta polita ikusiko da egun hauetan. 21:00etan.
- **Uztailak 23:** Ilargia Regulusekin konjuntzioan. 21:20an.
- **Uztailak 24:** Ilargia Saturnokin konjuntzioan. 21:50ean.
- **Uztailak 27:** Artizarra Karramarroren Nebulosatik igarotzen da. 5:20an.
- **Uztailak 28:** Delta Acuridas-en izar iheskor-
rak. 24:00etan. (20 meteorok, 41Km/s).
- **Uztailak 29:** Capricornidas-en izar iheskorrak. 24:00etan. (15 meteorok, handiak).
- **Abuztuak 2:** Merkurio Regulusekin konjuntzioan. 21:00etan.
- **Abuztuak 3:** Artizarra Messier 35ekin konjuntzioan. 5:20an.
- **Abuztuak 5:** Iluntzeko Ilargi-eklipsea Europan, Afrikan eta Hegoameriketean ikusiko da 19:41ean. Ilargia betea 19:56an.
- **Abuztuak 6:** Jupiter Ilargiarekin konjuntzioan. 22:00etan.
- **Abuztuak 12:** Perseidako izar iheskorren maximoa. 60 meteorok orduko. Kolore urdin-berdeskak. 24:00etan.
- **Abuztuak 13:** Swift-Tuttle kometa. Ilargia ilberheran.
- **Abuztuak 14:** Jupiter oposizioan, gau osoan ikusiko da.
- **Abuztuak 16:** Martitz, Ilargia eta Artizarra lerrokatuta. 5:15ean.
- **Abuztuak 17:** Merkurio Saturnoren hegoaldean. 20:55ean.
- **Abuztuak 18:** Errauts-argiak Ilargiaren alde iluna argituko du. 6:00etan.
- **Abuztuak 19:** Ilargia perigeoan. 0:00etan.
- **Abuztuak 20:** Ilargia ilberrian. 5:02an.
- **Abuztuak 21-22:** Ilargia fina eta liraina. 20:40an.

Maribel Zufiar

JAKIN BEHARREKOAK

Gurelur elkarte ekologistak Magnesitas enpresa salatu du Alduides (Batasuneko Garrantzizko Lekua izendatua) Erro bailarako Zilbeti herrian egin dituen pago mozketengatik.

Nafarroako sagarrondo autoktonoen 276 barietate deskribatu ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerlari taldeak. Bioaniztasun genetiko handia dagoela ikusi dute: zuhaitzen indarren, adarkatzeko joeran, hosto eta loreen kolore eta tamainaen. Baita erabilera ezberdinak barietatearen arabera eta izurrite eta gaixotasun aurkako erresistentzian.

Igaraba Palencian. 2004-2005. urtean eginiko ikerketaren emaitzen arabera, 1984 eta 1994. urteko ondorioekin alderatuta, igaraben populazioa berreskuratzeko maila asko igo dela azaltzen du. Habitaren suntsiketaren ondorioz ubide askotan igaraba desagertu egin zen baina orain berriz agertu da egoera hobetzean.

Merkurio planetak ere sumendiak, erupzioak eta jarduera tektonikoak izan zituen. Zientzialariek Merkurio gorputz hotza zela uste zuten, jarduera gabekoa. Baina Messenger zuntzak bidali dituen datu berriei esker oker zeudela baieztatu da. Planetan failak eta zartadurak ikus daitezke jarduera hauen ondorio gisa.

Denetik (XXIII)

Maizpide
euskaltegia**Zurumurrua tarteko bada... kontuz, aizue!**

Azkenaldi honetan gero eta maizago entzuten ditugu kalean horrelako esaldiak:

- ✗ Florentinori entzundakoaren arabera, Xabi Alonso Madrilen arituko litzateke datorren denboraldian (*desegokia*)
- ✗ "Kaixo" aldizkariak dioenaren arabera, Martin Zipriztin boxeolari ospetsua eta Pamela Goikoetxea kantaria aurtengo udan ezkonduko lirateke (*desegokia*)
Gaztelaniaz egindako esaldien "kalkoak" dira, azken batean. Honela, askoz txukunago:
 - ✓ Florentinori entzundakoaren arabera, Xabi Alonso Madrilen arituko da datorren denboraldian (*egokia*)
 - ✓ "Kaixo" aldizkariak dioenaren arabera, Martin Zipriztin boxeolari ospetsua eta Pamela Goikoetxea kantaria aurtengo udan ezkontzekoak dira / ezkontzekotan dira / ezkonduko dira (*egokia*)

Esaldiak alfer-alferrik luzatzea...

Askotan euskaraz modu guztiz arruntean esan daitekeena luzatzen edo "korapilatzen" abilak garela esan behar da. "Errua", ia beti bezala, Cervantes-en hizkuntzaren eraginak izaten du. Ikusi, bestela:

- ✗ Badira irakasle asko konforme ez daudenak (*aukeran, hurrengoa hobeto*)
- ✓ Irakasle asko ez daude batere konforme (*egokia*)
- ✗ Realean garrantzitsuenak diren biru jokalaria saldu egingo dituzte (*aukeran, hurrengoa hobeto*)

- ✓ Realeko biru jokalaria garrantzitsuenak saldu egingo dituzte (*egokia*)
- ✗ Monumentuaren eraikuntza egitea da kontua (*desegokia*)
- ✓ Monumentua eraikitzea da kontua (*egokia*)
- ✗ Atzo ordu aldaketari ekin genion europarrok (*desegokia*)
- ✓ Atzo ordua aldatu genuen europarrok (*egokia*)
- ✗ Jon izeneko mutikoa aurkitzen da hondartzako aldageletan! Gurasoak azaldu daitezela lebenbaileben, mesedez! (*desegokia*)
- ✓ Jon izeneko mutikoa dago hondartzako aldageletan! Gurasoak azaldu daitezela lebenbaileben, mesedez! (*egokia*)
- ✗ Zumalakarregi museoa Ormaiztegin kokatuta aurkitzen da (*desegokia*)
- ✓ Zumalakarregi museoa Ormaiztegin dago (*egokia*)
- ✗ Gaizki aurkitzen al zara, Arantxa? (*desegokia*)
- ✓ Gaizki (ondoezik) al zaude, Arantxa? (*egokia*)

Atzeman / antzeman

Nahastu egiten ditugu askotan. Kontuz, beraz!

Atzeman (= harrapatu):

Neska gazteren batek atzeman al binduen, Inazio?

Bruselan gezurretan atzeman omen dute eurodiputaturen bat

Antzeman (= igarri, nabari izan, ezagunizan)

Kanpotarra dela antzematen da / zaio

Kanpotarra dela nabari da

Kanpotarra dela igartzen zaio

Ezagun du kanpotarra dela

Lasai, Bizkor,
albaitariak dioenaren arabera,
datorren hilean hasiko zara berriro
korrika egiten eta!

Hori, beti ere, atzekoa bezalako
beste zakurtzarren batek atzematen
ez badu!



Matilde Galarraga albaitariak berehala antzeman zion katutxoari zer zuen...

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Antzeman nion Errumania aldetik etorritakoa zela.
2. Lapurrak polizia atzematen duen pelikularik ez dut oraindik ikusi!
3. Administrazioak emandako erantzunaren arabera, Etiopiako haurra Gabonak aldera izango genuke etxean.

OHARRA: denak zuzenak, hirugarrena izan ezik ("Gabonak aldera izango dugu etxean" behar du).

NZ

nazaret zentroa

Aldakonea, 36 · Bº Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com

MATRIKULA IREKIA

BATXILERGOA
Ekainaren 29tik Uztailaren 3rarte

LANBIDE ZIKLOAK
AURREMATRIKULA
Ekainaren 1etik Uztailaren 12rarte
MATRIKULA
Ekainaren 29tik Uztailaren 3rarte

Batxilergoa

- Zientziak eta Teknologia
- Natura eta Osasun Zientziak


Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

- Administrazioa eta Finantzak
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Nazioarteko Merkataritza
- Idazkaritza

Ziklo Ertainak

- Administrazio-Kudeaketa



kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza

Goierritarra



GOIERRIKO

hitza



Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

Goierritarra 27 euro **GOIERRIKO hitza** 67 euro
Egin bat aukeratutako kaxan

Goierritarra + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**

Ordenagailu eramangarri txiki merkea

AHOLKUA

Prezio merkea duten ordenagailu eramangarri txikiak, izugarritzko arrakasta izan dute azken aldian. Ia denerrako baliagarriak dira. Baina, zeri begiratu behar diogu honelako ordenagailu bat erosterakoan? Kontuan hartu beharreko 10 aholku dituzu ondoren.

1. Zuretzat da?

Ordenagailu honen erosleak hiru taldeetan sailkatzen dira: Bigarren ordenagailu "laguntzaile" moduko erabilpena eman nahi diotenak edo eta bidaiatzeko erabili nahi dutenak. Lehen ordenagailu moduan, txikia, oinarrizkoa eta simplea nahi dutenak. Eta infomatika munduan hasi nahi duten haurrak.

2. Salneurria

200 euro azpitik aurki daitezke honelako ordenagailuak, baina kontutan izan beharrekoa da, pantaila txikiak (7") edo teknologikoki motelagoak direla. Itxurazkoak 300-400 euro inguru kosta daitezke, hortik gora hobe ohizko ordenagailu eramangarri bat erostea.

3. Pantailaren neurria

Nahiz eta 7"-ko pantailak izan, arrakasta gehiena 9"



eta 10"-ekoak izaten dute. Hauek pantaila handiagoa izatean, teklatura ere handiagoa dute.

4. Datuen gordeketa

Ohizkoa den formatu txiki-ko disko gogorra daramate datuak gordetzeko 160 Gb ingurukoak. Kanpoko disko gogorra eta "penDrive" moduko memoriak ere erabili daitezke, memori txartelak ere bai.

5. Sistema eragilea

Gehien saltzen direnak, Windows Xp sistema eragilea daramate. Linux sistemarekin erosten badugu, prezioa ere merketu egingo da.

6. Teklatua

Pantalailaren neurria egokitua aurkitzen dugu teklatura. Geroz eta handiagoa, errezago teklatuko dugu. Teklatu txikietan, postura txarrak hartzen dira eta teklak batzuk txikiak izateagatik edo eta leku zailetan egoteagatik, idazterakoan huts asko egiten dira.

7. "Touchpad" sagua

Oso txikitua aurkitzen denez, egokiagoa da ordenagailu hauetan, ohizko sagu bat ipintzea. Kablerik gabekoak dira egokienak.

8. Konektibitatea

Ordenagailu hauek, Internet erabili ahal izateko sor-



Jose Luis Estala
Informatika teknikaria
Infonet - Ordizia

tuak dira gehienbat. WiFi daramate denek, kablerik gabe erabili ahal izateko edozein lekutan. "Lan" edo sare konexioa eta "Bluetooth"-a ere badute. Memori txartelak irakurtzen dituzte, eta "usb"-a ere badute.

9.- Neurria

Antzeko neurria duten arren, dituzten konektoreek edo eta bateriak duten taimainak, handiagoa edo txikiagoa egingo dute ordenagailua. Pixua 1,5 Kg-z azpitik dute, oso eramangarriak.

10. Autonomia

2 - 4 orduko iraunpena izaten dute gehienek. Ordezko bateria bat eramatea izan daiteke, beharrez arabera, aukera on bat.

MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486
e.a.

INFONET
INFORMATIKA
ZERBITZUAK
SALMENTA
ETA
KONPONKETA
Goierri kalea, 1 (P21) ORDIZIA
Tel.: 943 883 201 / 652 771 437
infonet_ordizia@terra.es



*Fermin Aramendi eta Joxe
Mari Apaolaza kazetariak*

**“Tourra
tourra da,
dena dauka”**

Galdetzera ohituta badaude ere, oraingoan, mikrofonoaren beste aldean jarri ditugu txirrindularitzaren kontalari diren bi goierritarrak. Joxe Mari Apaolaza Euskadiko Irratiko kirol esataria da. 43 urte ditu eta lazkaotarra da. Fer-

min Aramendi, ETBeko kazetaria da. Ataundarra da eta 49 urte ditu. Tourra iristearekin batera, txirrindularitza denboraldian gailurrean gaude eta Tourraz eta txirrindularitzaz hitz egin dugu bi kazetari goierritarrekin.


GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

xetai
nafarroa etorbidea 1
beasain gipuzkoa
www.xetai.net

SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



“Tourrak dena dauka”

Zer dauka Tourrak, beste karrerek ez dutena?

Aramendi: Tourrak dena dauka. Batetik, pelotoirik onena dauka. Korredore guztiak puntuan. Bestetik, prestigioa; prentsa, mundu guztia han dago; antolakuntza, izan daitekeen onena; eta jendearen estimazioa.

Apaolaza: Eta horri denari gehitzeko, eguraldia eta telebistatik jarraitzen duenarentzat bereziki, Frantzia erakusteko Frantziako telebistak egiten duen lana. Hilabeteak lehenago ibilbide guztia ikusita daukate. Badakite zein momentutan zein gazteluren, zubiren... ondotik pasatuko diren... zein tren pasatuko den... Espektakularra ere halaxe ematen dute, tourrak dauzkan osagai horiek guztiekin batera.

Aramendi: Tourrak dena dauka. Antolakuntzarik perfektuena izango da, zorrotzena eta taldeek ordaindu egiten dute hara joateagatik.

Tourra hastear dago, txirrindularitza denboraldiaren gailurrera iritsi gara, ezta?

Fermin Aramendi: Orain txete gaude bai gorenean. Maiatza eta uztaila bitarteko hilabete hauek dira goia jotzen dutenak. Orain aldapa gora eta gailurrean gauden bezala, behin Tourra pasatutakoan behera egiten du, nabarmen gainera. Urteko garairik onena da guretzat.

Lanik gehiena, baina politena ere bai.

Joxe Mari Apaolaza: Hala da bai. Txirrindulariak ere oraintxe daude puntuan. Beste urte sasoen batean esaten dugu, halako karretarako ari da eta besterako ari da, baina orain aitzakiarik ez dago.

Ogibideak egin zaituzte txirrinduzaleak ala aurretik ere bazineten?

Aramendi: Ni aurretik ere

banintzen. Banintzen baina beste era batera. Tourrera joaten zen horietakoa nintzen, 1985-86 urte haietan. Orduan ziklismo zalea, hila-bete batean zinen, Tour garaian. Giroa pixkat, Vuelta España... orduan gainera oso konzentratuta zegoen.

Apaolaza: Ni ere bai. Bizikletan ibiltzen nintzen beti. Lanean hasi aurretik ere bizikleta bueltak egiten genituen. Gogoan daukat,

1977an Tourreko etapa Gasteizen bukatu zenean eta Nazabal alde eginda pasatu zenean, Etxarrira nola joan ginen. Osabak kotxea bazuen eta hantxe joan ginen denok. 12 urte nituen eta huraxe da lehenengo in-paktua. Afizioa beti egon da gure etxean. Nik neronek, futbola igual gehiago nuen baina gero txirrindularitza ere bai.

Joxe Mari, irratian zer da

errazagoa: futbol partidua ala lasterketa bat ematea?

Apaolaza: Futbola esango nuke nik. Erretransmisioa egiteko momentuan, futbola mugituagoa da. Etengabe gauzak gertatzen ari dira. Irratian nola tarte guztiak bete behar diren hitzekin, igual futbolarik aukera gehiago ematen dizkizu, ziklismoak baino. Ziklismoan, ordeko etapa denean eta pelotoia batera dihoanean, narrazioa egin behar baduzu, derrigorrean euskarria behar duzu, iritzi emaileren bat edo norbait.

Irratia asko aldatu da. Telebistak baldintzatu gaitugu, erabat. Lehen, irudirik ez zenean eta irratia han zegoenean, irratia bera ari zen irudia sortzen. Orain, mundu guztiak, irratia entzuten ari bada ere, telebista dauka. Irratiak beste plus bat bilatu behar du. Kontatu bakarrik ez, iritzia, bitxikeriak... behar dira. Osatu egin behar duzu.

Talde finkoa zaudete azken urteetan Euskadi Irratian: zu zeu, Joxe Mari, Perurena eta Usabiaga.

Apaolaza: Aurten ere hala izatekoak gara. Telebista ematen ari dena ari gara kontatzen. Zu bertan baldin bazaude, Tourrera baldin bazoaz, helmugatik ari bazara kontaketa egiten... beste gauza batzuk ere badituzu kontatzeko. Baina telebistak baldintzatzen badu zure jarduna, osatu beharra dago. Hauek telebistan, hutsarteak egiten dituzte eta askotan eskertu ere egin dezakezu, paisaje bat estimatzeko. Irratian, etengabe aritu behar zara.

Zu Fermin, Tourrera bertara joaten zara. Zer moduzko lana izaten da?

Aramendi: Azkeneko urteotan, lan txarra. Lehen, komentaria postu batekin joaten ginen, narrazioa egiten genuen eta hemen diferentzian ematen zen. TVE-k dauka Tourreko irudien es-

kubidea, guk ez daukagu aukerarik. Orain diferentzian emateko ere, dirutza ordaindu behar da. Dirutza lotsagarria eskatzen dute. Ikusi zuten diferentziak guri funtzionatu egiten zigula. Iluntzean, 9ak aldera ematen genuen. Orduan, diru gehiago eskatzen hasi ziren. Diferentziko programa bat ezin zitekeela hainbeste ordaindu erabaki zen.

Telebistak baldintzatu du irratia. Lehen irudirik ez zenean eta irratia han zegoenean, irratia bera ari zen irudia sortzen. **JOXE MARI APAOLAZA**

Orduan orain joaten gara, albistea ematera batetik eta karreraren inguruan izaten den gairen bat bilatu, heldulekuren bat heldu... Batez ere, presentziagatik. Mundu guztia egoten da Tourrean, badakite guk ez dugula horrelako aportaziorik egiterik, baina Tourra Tourra denez, presentzia eduki beharra daukagulako joaten gara. Lan txarra. Ez

zarena kontatuko du. Baina han edukitze hori, beti da plus bat. Mundu bat ezagutu, harremanak egin... bertan ez bazaude, nekezago egiten duzu telefonoz. Era berean, produktu bat eskaini dezakezu telebistak ematen dizunarekin: bi komentaria jarri eta produktu ona ari zara ematen. Baina beti faltako duzu bertan egote hori. Eta hori dena,

jakina, dirua da.

Tourra, Tourra da ezta?

Aramendi: Tourrak futbolzalea ere mugitu egiten du. Paris-Nizak edo Tirrenok mugitzen ez duen jendea. Uztailean, futbolik ez dago eta beste ezer ez dago eta Tourra da.

Apaolaza: Aisi hilabetea ere bada. Lanean dabilenak ere, arratsaldeetan jai dauka. Jendea gehiago mugit-

Tourra Tourra da. Tourrak futbolzalea ere mugitu egiten du. Uztailean futbolik ez dago, Tourra dago. **FERMIN ARAMENDI**

da joan, etapa komentatu eta kitto. Modu txarrean, batera eta bestera ibili behar zara. Egunerok gainera zerbait heldu beharra daukazu eta kosta egiten da eguneroko lana sortzea.

Apaolaza: Guk diruagatik, han nahiz eta norbait edukit... hark ere zu ikusten ari

tzen da eta ikusteko ere aukera gehiago dago.

Eta orain arteko denboraldia zer moduz doa? Ezustekorik ba al dago?

Aramendi: Bai, polita. Beti izaten dira ezustekoak. Espero ez dituzun batzuk nabarmentzen dira baina itzuli handiei begira, aurreko

urteetako taldea dabil oraindik. Giroa bukatu berria da eta aurreneko hamarretan sartu diren denak, 30 urteen bueltan dabilta. Horrek esan nahi du, itzuli handietan behintzat, belaunaldi aldatetarik ez dela egon. Eta Tourrean ere ez da emango. Berdintsua izango da. Baina klasikoetan eta egun bakarreko karrera horietan, ikusi dira gazteak.

Belaunaldi berririk ez dela izango esan duzue, baina beterano bat itzuliko da aurtengo Tourrera.

Aramendi: Armstrong?

Apaolaza: Etorri, etorriko da. Armstrongek egin dezakeenaz iritzi eta zalantza asko dago. Nik neronek uste dut, lehiarako daukan grina, lehen ere bagenekien eta hiru urte aparte egonda, ahalegin hori egingo duela eta ahalmen hori badaukala garbi dago. Berak itzuliko zela esan zuenean, beste proiektu bat ere bazuen. Minbiziaren kontrako gizarteratzea egin nahi zuen mundu mailan. Nik ez dakit, baina uste dut berak barruan daukan lehiatzeko grina hori, irabazteko daukan gose hori ez zaiola itzali eta hiru urte kamaretatik aparte egonda ere ez zaio itzali. Funtsean hori dago. Giroan ere erakutsi zuen izaera hori, klubikula hautsi berritan hor dago. Nik ez dut uste goiko mailara itzultzeko Armstrongik ikusiko dugunik Tourrean. Baina horrek beharbada, berriz ere zirkoa martxan jarri du. Mediatikoki, babesle aldetik... Show kutsu hori badauka. Lehiarako nik ez dakit.

Aramendi: Armstrongen gaiari bi alde ikusten dizkiot, ona eta txarra. Ona, zirkoak jendea mugitu duelako. Baina nik ez dut uste ziklismoarentzako ona izango litzatekeenik, Armstrongek Tourra irabaziko balu. Uste dut kalterako izango litzatekeela. Eta Joxe Mari esan duena: barruan arra



Historiako txirrindulari bat:

Gustatzez, bere kondairak jaso ditudalako eta bere bizitza pixka bat irakurrita dudalako, Gino Bartali italiarra. Guk etxean asko bizi izan dugu ziklismoa. Garai bateko egunkari puskak badaude oraindik. Aditza asko gustatu izan zait eta aita kontalari ona izan da eta garai bateko kontuak ondo akordatzan da. 1936ko gerraren aurretik, Bidanitik pasatu zen Euskal Herriko itzuli batera bizikletan joan zirela, eta urte hartan Bartali etorri zen. Asko daukat entzundakoa eta asko daukat irakurrita. Anaia hil, fraile sartu, Tourra 10 urteko tartean irabazteko gai izan zen... Mitoa sortu zait jaso dudan guzti horretatik.

Gaur egungoetako bat:

Contador da onena, baina nork erakartzen edo katiatzen nauen gehien? Nik hori, Irujorekin bakarrik daukat. Pilotan Irujorekin sufritu egiten dut.

Lasterketa bat:

Paris-Roubaix.

Ikusteko kirol bat:

Ziklismoa eta futbola. Espektakulu bezala ikusteko ikaragarri gustatzen zait futbola, partidua bera.

Irratian emateko kirol bat:

Futbola.

Praktikatzeko kirol bat:

Ziklismoa eta korrika.

Kirol kazetari bat:

Gaztetako oroimenean dut, Hector del Mar.

Bizitzeko leku bat:

Lizarra aldea.

Oporretarako leku bat:

Gaztela. Galsoroak, egun bero lehorrak eta gau freskoak.

Amets bat:

Zorrik gabe gustuko leku batean bizitzea eta Euskal Herri independente bat ezagutzea.

daukala, sosegatu ezin duen ar horietakoa. Iaz eta aurreko urteetan etxean Tourra nola joan zen ikusiko zuen, zeintzuk dabilizan aurrean... "Ni horiek mane-jatzeko gai naiz oraindik", pentsatuko zuen. Aparte, uste dut gabezia daukala, ohituta dago mundu guztia bere bueltan izaten...

Apaolaza: Su hori hor zeukan. Ni ere bat nator, ez dut uste ona izango litzatekeenik Amstrongek Tourra irabaztea. Nahiz eta ez dagoen sekula ezer aurreratzerik, ez zait iruditzen irabazteko azalduko denik.

Aramendi: Eta nik uste dut Giroan, bera jabetu dela, lehen uste zuena ez dela

igual izango Tourrean. Hau seguru, iaz denborak-eta hartzen aritu zela eta berak usteko zuen menderatu egingo zituela. Giroan ikusi du zaila izango duela. Gerta liteke Tourrera joan eta hanka batekin irabaztea. Baina ez zait iruditzen.

Gaur egungo txirrindularitzan mailarik ba al dago?

Aramendi: Bai, badago. Zikloak izaten dira eta tarteka extraren bat ateratzen da. Indurainen garaian Indurain bezala, Amstrong... Zikloak beti izan dira. Merckxen garaia ere hor izan zen. Hinaut etorri zen gero...

Apaolaza: Kirol guztietakoa da hori.

Aramendi: Nik uste dut bizilegea dela.

Orain dena den, bizitasun gehiago ere badago beharbada. Irabazteko aukera, gehiagoren artean dago.

go: Menchov, Sastre, Contador... sail bat egon liteke, zein baino zein Tourra irabazteko. Karrerari on egiten diote patroirik gabeko urte horiek. Segurasko, patro handi horiek edukitzeak mediatikoki izango du bere eragina, Jainkotzen da bat... baina kirol lehiarako ez dio mesederik egiten.

Aurten, irekita dago bezaraz. Zein duzue faborito?

Aramendi: Denok daukaguna. Aurten faborittoa bat dago, garbi samarra. Ez beharbada Amstrongnen garaiko koskarekin, baina Contador dago. Ondo dela, Contadorrek irabazi behar luke.

Apaolaza: Nik ere garbi, Contador ikusten dut. Txirrindulari onak, egindako txirrindulariak, edozein momentutan karrera handi bat irabazteko badaude. Evans hor egon da podiumean, Menchov Giroa irabazita

A Amstrongek barruan daukan lehiatzeko grina, irabazteko daukan gose hori ez zaio itzali. **JOXE MARI APAOLAZA**

Apaolaza: Beti izaten da aukera gehiago eta iaz ere hori gertatu zen. Ikusteko eta jendearentzako hobea da.

Aramendi: Politagoa askoz. Lehen ateratzerako bagenekien nork irabazi behar zuen. Orain, askoz ere politagoa da. Nik uste dut Amrstrong erretiratuta, mesede egin ziola karrerari. Karrerari eta jendeari. Lehen zen, nork egingo ote du bigarren. Eta orain galdera da: nork irabaziko du? **Porra asmatzea beraz, zailagoa dago orain.**

Apaolaza: 30 urteko buelta horretan, korredore oso onak daude. Orain jendea irabazteko aukerarekin da-

dator, Sastrek irabazita dauka...

Aramendi: Schlek anaiak...

Apaolaza: Beste zerbait ikusten zaio Contadorri, ondo dagoela.

Tourra eta dopinga. Azken urteetan itsusituta ibili da txirrindularitza.

Aramendi: Ibili da, eta dabil. Katiatuta daude eta konponbide txarra dago. Gizartea dago gaizki eta gizartearen ispilua da. Hainbeste diru mugitzen den leku batean, alperrik dira legeak. Azken batean norberaren borondatea dago eta pertsonak badakigu zer diren, aurrean dirua jarriz gero.

Apaolaza: Arazoa estrukturala da. Ondokoa baino gutxiago zarenean, bestea menperatzeko nahi hori oso oinarritzkoa da, oso aintzirikoa da. Eta zure baliabideak ez diren beste zerbaite hartuko duzu. Sistemak horretara bultzatuko zaitu, zuk irabaztearen baitan egon baidateke talde osoaren kontratua eta taldeak datoren urtean segitzea. Zenbat eta gorputzez zailduagoa eta produktuekin jantziagoa baldin badaukazu eta abadura handiagoan egiten baduzu, espektakulua handiagoa izan liteke orain. Telebistarekin beharbada, kontsumo azkarreko produktuak behar dira, biziak... horregatik esaten nuen estrukturala dela. Eta zigor birtartez kendu beharra, eta kendu ahal izatea ez dakit

bizi sortu zaion, halako produkturen gehiegizko erabilera egin zuelako. Kontrol hori behar da. Baina seguru nago, tranpa beti, kontrolaren aurretik joango dela. Bidea nik ikusten dut hori dela, kontrola eta zigorra. Eta tristea da.

Txirrindulariak kexatu egiten dira kontrol mordoa pasatu behar izaten dituztelako, askotan, intimitate garaietan...

Aramendi: Bai, baina ateratzen diren positibo guztiak? Txirrindulariek daukaten arazorik handiena da, beraien artean ez direla elkartuko, beraien gainetik managerrak daudelako eta managerrak sponsorren menpe daudelako... Eta gu profesionali buruz ari gara. Larriagoa iruditzen zait oraindik, zikloturismoan

Dopingaren inguruan, pertsona eta kirolaria bereizten jakin behar dugu. Pertsona gauza bat da eta kirolaria beste bat. Kirolariek, presio handia daukate alde guztietatik. **FERMIN ARAMENDI**

posible izango den sekula. Heziketa bitartez, gizarte sistema aldatze bitartez... oso gauza luzeak eta noizbait egitekoak izango dira, baina... Noizbait kentzekotan, kultur balio berrietan edo heziketan egongo da. Zigorrekin? Ni zigorren aldekoa naiz. Zigorren aldekoa edo kontrolak egitearen aldekoa, ez baitut besterik ikusten. Kontrolak egitearen aldekoa, besterik ez bada, bere garaian gertatzen zirenak ez gertatzeko: produktuak hartzeagatik, bat-batean hilda gelditu da txirrindularitzan ibilitako bat, edo ez dakit zein min-

gertatzen ari dena. Pertsona berez da tranposoa eta bi lagun elkartzan badira apustu batean, kitto.

Doping kasuren bat entzuten duzuenen, zer sentitzen duzue?

Apaolaza: Zaildu egiten zara, gogortu egin zaizu azala, baina aurrea etsipen puntua izaten duzu. Zertan ari gara? esaten duzu.

Aramendi: Nik uste dut, pertsona eta kirolaria bereizten jakin behar dugula. Pertsona gauza bat da eta kirolaria beste bat. Kirolariek, presio handia daukate alde guztietatik. Kirolari bat maila zehatz batera iristen



Fermin Aramendi

Historiako txirrindulari bat:

Perurena. Merckx iruditzen zait izan dela munduan onena, baina mutiko garaian eta, Perurena. Gainera gertuko izanda...

Gaur egungoetako bat:

Onena Contador da hiru asteko karrerarako. Baina gaur egun gertatzen zait, mutikotan Perurenaren irudia bizi izan nuen bezala inor ez zaidala iristen. Gustatu asko, hemengo mutiko onak badaude... baina beste era batera hartzen dut ziklismoa, distantzia batekin. Lemonekin izan nuen halako sinpatia bat. Delgadorekin zeukan borroka harregatik izango zen. Oso gertuko sentitzen nuen Lemon eta Indurain ere bai.

Lasterketa bat:

Flandesko itzulia.

Ikusteko kirol bat:

Ziklismoa.

Telebistan emateko kirol bat:

Ziklismoa.

Egiteko kirol bat:

Ziklismoa eta mendia.

Kirol kazetari bat:

Josetxo Lizartza.

Bizitzeko leku bat:

Ataun, eta Ataun ez bada, Nafarroa.

Oporretarako leku bat:

Mendia dagoen edozein leku.

Amets bat:

Jubilaziora kirola egiteko moduan ailegatzea eta Euskal Herriak bere selekzioaz gozatzeko aukera izatea.

ez bada, etxera doa. Maila horretara iristeko, askok, laguntza beharko du. Laguntzarekin arriskua dago. Gurpilean sartzen zara eta onartzen edo ez duzu onartzen. Pertsona eta kirolaria bereiztu behar dira.

Apaolaza: Ez doaz txirrindularirik berekasa, momentu jakin batean denetik egongo zen, baina... horregatik esaten genuen estrukturala dela. Taldea bera da. Azkenaldian eman diren

pausoak hortik doaz, positibo bat badago, talde osoa bidaltzen da etxera, medikua ere bai. Horrek azaltzen du, ardura ez dela kirolariarena, erabat.

Aramendi: Ardura badu, baina inguruak eragiten du, sistema baten biktimak dira.

Zigor neurriak zuzenak iruditzen zaizkizue orduan.

Aramendi: Neurriak jarri beharrean daude derrigorean. Noraino?

Apaolaza: Orain pasaporte biologikoarena ere hor dago, ez dakit zenbat kontrol pasatu eta bost kasu azaldu dira. Zein kontrol klase egin behar den? Guk baino gehiago buruari bueltak emandakoak izango dira. Nik ez dut beste biderik ikusten: kontrola.

Dopingaren, krisi ekonomikoaren... ondorioz, zer moduz dago txirrindularitza?

Aramendi: Egon den baxuena egongo da. Audientzia ere, inoizko audientziarik baxuenean gabilta. Baina nik uste dut, sponsorrena baino gehiago izango dela dopingaren ondorioa. Jendea nik uste dut, nazkatu egin dela. Azkeneko urteetan, Giroa, Tourra eta Vuelta irabazitakoak, zalan-tzakoak izan dira. Batak ez

bada besteak eman du, bigarrenak ere bai... Hor joan dira, bost-sei itzuli handi segidan, irabazleak, zalantzan egon direnak. Ze txiste da hori!

Apaolaza: Jendeak azken batean, telebistari begira jarrita, esaten du: "hor ikusten ari naizen hori egia dek? Denek leporaino zebiltzek, hori ez dek egia", esatea normala da.

Aramendi: Lehenengo Landisek. Ondoren, Vini-kourov, aurretik Heras Vuelta Españan, Giroan ere igual... Aurrean ibili direnak denak. Amstrongek ere, 1999ko epoa hor dauka.

Sinigarritasuna galdu dugu beraz.

Aramendi: Hori da bai. Jendea, dezepzionatu bezala egin da. Puntuala izan

balitz, baina bata bestearen atzetik ari dira agertzen.

Apaolaza: Horrek berak, babesleak atzeratzen ditu. Mundu mailako krisia hor dago, dudarik gabe, baina inork ez du bere firma horrelako gauza batekin lotzea nahi. Desprestigio handia da. Eta justu, ziklismoa hori izan da: publizitatea ia betidanik izan duen kirola, ziklismoa izan da. Firma batentzat, herriz herri doan gizon batek, bere ize-na eramaten du. Oso garraibide egokia izan da publizitatearentzat ziklismoa. Orain pentsa, telebistarekin zer den. Baina atzeratu egin da.

Buelta txiki asko ere desagertzen ari dira.

Aramendi: Asko. Hemen bertan bat bera joan da, Euskal Bizikleta. Gu ere

atzeratzen ari gara ETBn. Aurten lehenengo aldiz, ez dugu Zornotzako karrera eskaini. Urkiola ere ez dugu eskainiko. Audientzia behe-ra doa eta gutxieneko audientzia eman ezean, ezin da diru kopuru batetik gora gastatu.

Apaolaza: Dena gurpilean doa.

Tourra bakarrik geldituko al da?

Aramendi: Tourra ziklismoa baino gehiago da.

Apaolaza: Tourra planeta aislatu bat da. Dena nola daukan, beti zerbait egongo da erakarriko duena. Bestetik ez bada Frantziako paisaia ikusteko.

Aramendi: Tourra aparte dago, egutegitik aparte dago. Tourra enpresa handi bat da. 200 lagunetik gora urte guztian aritzen dira.

Kirola eginez gozatu

Kirolaz eta batez ere txirrindularitzaz hitz egin dugu, baina argi utzi digute, "kirola ikustearekin baino gehiago gozaten dugu kirola egitearekin". Oraindik ere kirola egin gozatu egiten dute. "Eta gehiago ez, uzten ez digutelako". Bizikletan ibiltzea izugarri gustatzen zaie. Elkarrekin bizikleta buelta bat baino gehiago egindakoak dira Nafarroa aldera. Baina bizikletak, denbora eskatzen du. Bi Quebrantahuesos elkarrekin egindakoak dira. Ferminek, bost eginda ditu. "Quebrantahuesos karrera bera baino politagoa da bere aitzakian egin egin behar den eguneroko lana".

Lizarrusti, askotan igotakoak dira. "Arbolak kontaktatu geneuzkan garai batean. Badakizu ze lujo daukagun! Behin Lizarrusti pasatuta, Sakana osoa, Lizarraga,... kotxe bat ikusi gabe egun guztia egin dezakezu", diote.

Tourra jarraitzen ari direnean, mendateren bat igotzeko tentaziorik izaten al duten galdetu diegu. "Tentaziorik ez, biderik ez daukazulako baina gustura bai. Oporretan egon, carabana hartu... Nik han ikusten ditudanean karabanak, telebista txikiarekin eta atzean bizikletekin... uff. Horrek ematen dit inbidia!", dio Aramendik.

"Ni izugarri erakartzen nau baina eguneroko martxan, kirola egiteko aukera edukitzeak horrek gehiago betetzen nau. Horrekin konformatzen naiz", gaineratu du Apaolazak.




Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

goierrikohitza. **iragarki**laburrak.com



www.iragarki**laburrak.com**
uztarria.iragarki**laburrak.com**
txintzarri.iragarki**laburrak.com**
otamotz.iragarki**laburrak.com**
elgoibarren.iragarki**laburrak.com**
soraluze.iragarki**laburrak.com**
bidasoamedia.iragarki**laburrak.com**

ukberri.iragarki**laburrak.com**
oarsoaldeko**hitza.iragarki**laburrak.com
tolosaldeko**hitza.iragarki**laburrak.com
11barri.iragarki**laburrak.com**
uro**la-kostako**hitza.iragarki**laburrak.com**
irutxulo**ko**hitza.iragarki**laburrak.com**
busturialdeko**hitza.iragarki**laburrak.com

milaka bisita, egunero

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

*Jarri zure
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.

X. Aizkorriko Lagunen Egunean gogoratuko dute

Aizkorriko aterpeak 75 urte



Aizkorri gaineko aterpea inauguratu zutela 75 urte beteko dira uztailaren 8an. Matias Gorrotxategi eta Maria Otaegi zegamarren promesaren ondorio izan zen aterpea eraikitzea. Data hori ospatuz, azken urte hauetan uztailleko lehen igandean egiten den bezala, X. Aizkorriko Lagunen Eguna ospatuko dute Zegaman.

1935.ko apirilean Pyrenaica aldizkariaren 17.zenbakian Euskal Herriko Alpinismo Federazioko lehendakaria zen Francisco Maria Labaien tolosarrak Aizkorriko aterpea eraikitzearen nondik norakoak eta izan zituzten eragozpenak argitaratu zituen artikuluan. Ondoko orrietan doa bertan Pyrenaican argitaratutakoaren laburpena.

ANDRAITZ
Fisioterapia Zentroa

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatalgiak
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Ordutegia:
astelehentik ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00


Andraitz kalea, 2 ez. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32

zuhatzki
S A
Zurgingindia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrocientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



CASA-ALBERGUE DE URBIA (Altitud 1.200 metros)
 Propiedad de la Forastería General de Guipúzcoa y Alava
 Arrendatario: D. Calixto Echeverría CEGAMA

Una vista de Aitzgorri tomada desde la pradera de Urbia. En el centro la montaña, a la derecha la casa albergue. Desde Urbia a Oizaine se celebra una fiesta los domingos y días festivos a las 8 de la mañana.

Situación admirable en la campiña de Urbia - sierra de Aitzgorri - a una hora del Santuario de Aránzazu (carretera). Clima sano, magníficas excursiones. Abierto desde el 1.º de Mayo hasta el 1.º de Noviembre - Pensión completa con habitaciones independientes. Frío estornudo - Precios arreglados - Agua corriente, ducha, teléfono público - Servicio de bar-restaurant.

Para informes y pedidos dirigirse al arrendatario:
 D. Calixto Echeverría
 CEGAMA [Guipúzcoa]

Ezkerrean, 1935ean kaleratu zen Pyreñaica aldizariaren azala. Erdian Aitzkorriko garaiko 4 irudi (goiko biak inaugurazio egunekoak) eta eskuinean, bitxikeri modura, Pyreñaicaren zenbaki horrek kontrazalean zuen iragarkia: Urbiako ostatukoa.

1934ko uztailaren 8an inauguratu zuten Aitzkorriko aterpea, Labaienek dionez, Gipuzkoako Alpinismo Federazioako zuzendaritzaren ardurari eta kemenari esker. Hauek 1925ean Tolosan hil zen Matias Gorrotxategi zegamarraren legatuak zioen ametsetako egitasmo hurra aurrera eramatea lortu zuten.

Legatu hori 2.000 pezetakoa zen eta 9 urtetan emandako interesekin 3.085 pezeta bihurtu ziren. Horrez gain Gipuzkoako Aldundiak 2.500 pezeta eta "Patronato Nacional del Turismo"-k beste 2.000 pezeta jarri zituen. Hainbat erakundek eta norbanakok jarritako diruarekin osatu ziren aterpea eraikitzeke beharrezko ziren 8.000 pezetak. Beraz mendi federazioari ez zaitzaion dirurik kostatu

Aitzkorriko haitzetan Santo Kristo ermitaren ondoan aterpea egitea. Proiektuaren egilea Julian Delgado Ubeda arkitekto eta mendizale madrildarra izan zen. Planoa moldatzea eta lanak zuzentzea Joaquin Labaien arkitekto eta mendizale zen tolosarraren ardura izan ziren.

Federazioak hartu zuen ardura

1928. urtean Bizkaiko Alpinismo Federazioa desagertu zen, aurretik Arabakoa eta Nafarroakoa desagertu zi-

ren bezalaxe. Euskal federazioaren barruan Gipuzkoak bakarrik eusten zion, nola edo hala, lanari. Egoera etsigarri honetan iritsi zen F. M. Labaienengana Matias Gorrotxategik, hiru urte aurretik, utzi zuen legatuaren berri.

Gorrotxategi familiak ez zuen Matiasen nahia betetzetik lortu, 2.000 pezeta haiekin ezer askorik egite-rik ez baitzegoen, eta diru gehiago ez baitzuten lortzen. Aitzkorriko aterpea egitearen erronka, berriz, Gipuzkoako federazioak bizi-

rik irauteko pizgarri izango zen itzaropena zuen Labaienek. Horretarako lagun izan zituen Donostiako eta Eibarko mendizaleak.

Lehenengo eginbeharra Zegamako udalarekin akordio batera iritea izan zen. Zirudienez udalarenak ziren aterpea egiteko asmoa zen Aitzkorri gaineko Santo Kristo ermitaren ondoko lurak. Udalarekin erraza izan zen akordioa eta dohainik utzi zuen eraikuntza egiteko behar zen lurra, diru-laguntza xume bat emateaz gain. Honela, egun gutxira, federazioako kideak 2 zinegotzirekin igo ziren Aitzkorriara, aterpeak hartuko zuen lur eremua markatzera.

Berehala hasi ziren gainontzeko laguntzen bila. Gipuzkoako Aldundiko buru Luis Castro Casal zen, tolosarra eta mendizalea hau

Zegamako udalarekin erraza izan zen akordioa eta dohainik utzi zuen eraikuntza egiteko behar zen lurra

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

biok kudeaketa
 fiskala
 kontablea
 merkatala
 laborala

Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
 www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Urdaneta, 7

Kontuan hartu
 behar da ez zela
 lan erraza,
 1.500m-ko altueran
 egin beharrekoa
 eta gertueneko
 errepidetik
 3 orduko
 zamaketa lana


ere. Beraz, erraz lortu zuten Aldundiarengandik 2.500 pezetako laguntza. Honek aldi berean "Patronato Nacional de Turismo"tik 2.000 pezeta lortzeko atekak zabaldu zien. Ustez zailena zena, dirua biltzea, hain erraz lortu ondoren, errazanak, aterpea eraikitzeak, buruhauste ugari eman zien Gipuzkoako Alpinismo Federazioekoei.

Zailtasunak hasi ziren

Pozez Matias Gorrotxategiren senitartekoengana joan zirenean, federaziokoan ezusterako zegamarraren ondorengoek dirua beste zeregin batzuetarako erabiltzea erabaki zuten. Matiasen legatuak garbi zioen diru hori Aizkorriko gainean aterpea egiteko zela eta aurkako erabakirik ezin zutela hartu konbentzitzen saiatu baziren ere, azkenean bi aldean arteko hartue-manak hautsi egin ziren.

Lagun batzuen eta hainbat senitartekoen bidez, azkenean lortu zuten Matiasen diru ondare hura, hainbat urtez atzeratutako lana aurrera eramateko, Gipuzkoako Alpinismo Federazioaren esku uztea.

1933ko abuztuaren hasieran, aterpea eraikitzeo lanak enkantera atera zituzten Zegamako Udaletxean; lanak bukatzeko 40 egune-



Aizkorriko Lagunen Elkarte

Aizkorriko gailurrean 1934ko uztailearen 8an 2.000 lagunetik gora bildu ziren erromeria-ospakizunetan, bertan egin berri zuten aterpearen inaugurazio-ekitaldiak zirela eta.

Izerdi patsetan gailurra jo, meza santua eta zegokion sermoia entzun, hamaiketako egin eta erromeria alaitsua, hala gogoratzen dute egunaren ederra garai hartako egunkariak. Ez zen gutxiagorako: mendizale eta artzainei hain premiazko zitzairen ateperleku eder bat eraiki izana ospatzen zuten eta hura ahalbideratu zutenei esker, emateko modurik egokiena ere hura izan zuten.

Matias Gorrotxategi Otaegi, Etxeberri-Erdi baserrikoa eta haren emazte Maria Otaegi Mujika, Larrekoko alaba, Aizkorri artzai zebiltzala, ekaitz eta denborale izu-

garri batek harrapatu zituen eta larrialdi hartan egin zuten promes, onik ateratzen baziren, Aizkorriko gailurrean aterpea, babeslekua egiteko bideak urratuko zituztela. Agindua zor, eta Matiasen bete: 1925ean hil zen eta bere testamentuan 2.000 pezeta utzi zituen izendatuta, Aizkorriko aterpe-txea eraikitzeo.

66 urte geroago, Zegamarrak Matias Gorrotxategi eta Maria Otaegi senar-emazteez gogoratzeko I. Aizkorriko Lagunen eguna antolatu zuten: mendi-ibilaldia, hamaiketako, herri-bazkaria eta festa-ospakizun berezia. Honela sortu zen Zegaman, 2000ko uztailearen 2an, Aizkorriko Lagunen Elkarte. Aizkorriko aterpea mendizaleentzat atsedean eta babes leku den eran, Zegamako herria Aizkorzaleen bilgune izan dadin.

ko epea emanez. Enkantera hainbat etxegile aurkeztu ziren baina batena izan zen eskaintzarik onena, alde handiarekin gainera. Kontuan hartu behar da ez zela lan erraza, 1.500m-ko altueran egin beharrekoa eta gertueneko errepidetik 3 orduko zamaketa lana.

Abuztuaren 10ean hasi zituzten lanak. Kasualitatez, Urbiatik egun horretan Aizkorriara igo ziren mendizale batzuk argazkia atera zuten

eta Donostiako egunkari batetan argitaratu zuten. Dena behar bezala zihoan, eguraldia ere ona zen eta federaziokoek irailaren 20rako lanak bukatuta izango zirelakoan zeuden. Honela urriko lehen igandean, Partzoneriak Urbiako zelaietan antolatzen zuen erromeri egunean, inauguratu ahalko zuten.

Baina egun gutxi barru berri txarrak iristen hasi ziren: Aizkorriara igotako

mendizaleek lanak ia geldi zeudela adierazi zuten. Hori entzunda federazioko hainbat kidek, bertara joan eta lanak nola zertan ziren ikustea erabaki zuten. Hitzordura lanen kontratista ez zen azaldu ere egin eta Aizkorri gainean hiru langile aurkitu zituzten, ez zuten lanerako beharrezko gairik ez eta janik ere!

Eraikuntza kontratua bertan behera uztekoan egon baziren ere, pazientziz

hitzartutako 40 egunak itxaron behar izan zuten. Hone-la irailaren 20an zimenduen gainean hormen hasiera bakarrik egeri zen. Pleguan aurkeztu eta 2. lekuan geratu zen kontratista prest zegoen lanekin jarraitzeko.

Eguraldi txarrak hasi aurretik denbora gutxi zegoen eta lehen bait lehen lanean hasi nahi izan zuten. Baina, beste eragozpen bat ere sortu zitzaien: aurreko kontratista, minduta, ez zegoen jaso behar zuen diruarekin ados eta lanak berriz hastea eragotzi zuen. Auzia epaibidera eramateak denbora behar zuenez eta negua gainean zenez, lanak hurrengo udaberrian hastea erabaki zuten.

Lanen bukaera

Kontratarekin izandako tira-birak konponbiderik ez zuela zirudien, baina, azkenean bere semearekin, hau ere kontratista, akordio batera iritsi zien: berak egingo zuen aterpea eta ekainaren bukaerarako bukatuta egongo zen. Eta hala izan zen.

Baina, bitartean beste ezusteko bat ere izan zuten federazioko kideek. Hainbat lagun azaldu ziren notari-akta aurkeztu eta aterpea eraiki behar zen lurraren jabetza beraiena zela adieraziz. Denen ustetan lur haiek Zegamako udalarenak ziren, eta udalak berak lurra utzi zituen eraikina egin

X. Aizkorriko Lagunen Eguna

Uztailak 5, igandea:

07:00etan: Mendi irteera, Zegamako plazatik abiatuta Aizkorriraino, Amezti mendi elkarteko kideen gidaritzapean.

08:00etan: Mendi ibilaldia Aizkorrodoko kanalean. Ibilaldia Apeaderoan hasiko da eta Zegamako plazan amaitu. Apeaderora igotzeko, autobusa egongo da Zegamako plazatik.

09:30ean: Aizkorriko aterpetxean oroimen-plaka jarriko da Aterpetxearen 75. urteurrena dela eta.

11:30ean: Mendizaleak herrira jaisten direnean, Eusko Labeleko hegaluzea dastatzeko aukera izango da Zegamako plazan.

18:00etan: Poxpolo eta Mokolo pailazoen 'Mekatxis Mariatxi' ikuskizuna, Zegamako pilotalekuan.



ahal izateko. Ustezko lur jabeak, ordea, asmo onarekin jo zuten federaziora. Prest zeuden aterpea eraikitzen hasi ziren lurra oparitzeko, egunen batean eraikina desartuz gero beraien jabetzara itzultzeko baldintzarekin.

Honela notarioarengana jo zuten jabe 'berrien' nahia betetzeko asmoarekin. Notarioak esan zien, beraiek ekarritako notari-aktak oso nahasiak zirela, bai idazkeraz, baita mugei zegokione-

an ere. Eta gainera, bertan zionaren arabera, ez zutela lurra oparitzeko eskubiderik, saltzeko edo trukatzeko baizik. Notarioak dokumentuen benetako balioa ikeritzeko mehatxua egin ondoren, Aizkorri gaineko 124'8 m² salneurri testimonilaeen, 5 pezetan, saltzeko akordioa iritsi ziren. Eta lurraren jabetza Gipuzkoako Alpinismo Federazioaren izenean jartzeko zailtasunak zeudenez, Francisco Maria La-

baien beraren izenean jarri zen. Eskritura jabetza erregistrora eraman eta tramiteak egitea erostea bera baino garestiago izan zen, 8 pezeta hain zuten ere.

Inaugurazioa ere atzeratu

Azkenean lanak bukatu eta inaugurazio eguna uztailaren 1erako jarri zen. Baina, bezperan oso eguraldi txarra egin zuen eta antolatzaileek festa astebete atzeratzea erabaki zuten. Berria larunbata arratsaldean Donostiako 'Union Radio'ren bidez zabaldu zuten. Baina albistea denen belarrietara iritsi ez zenez eta igandean eguraldiak hobera egin zenez, ehunka lagun elkartu ziren Aizkorriin, batez ere Donostiako irratia entzuterik izan ez zuten bizkaitarrak eta bezperan Madrildik abiatu ziren Peñalara elkarteko kideak, Delgado Ubeda arkitektoa buru zutela. Hauei Antxon Bandres mendizale beteranoak, Euskal Herriko Alpinismo Federazioko lehendakari izan, ongi etorria egin zien, eta Urbiako ostatuan bazkariak prest zituztenez bertan bazkaldu zuten denek. Honela egin zen aterpearen inaugurazio estraofiziala.

Uztailaren 8an egin zen inaugurazio jai handia. Izugarritzko jendetza bildu zen Aizkorriko gainean, eguraldia ere ederra egin zuen eta festa alai eta atsegina izan zuten bertaratu ziren denek.



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Haritz Artola, Fiachras Bizarduna

Brigada Criminal taldeak 2006. urtean bukatu zuen bere ibilbidea eta taldeko bi kidek, Haritz Artola lazkaotarrak eta Aitor Aldanondo bergararrak, Fiachras taldea sortu zuten beste hiru bergararrekin batera. Musika irlandarra egiten dute eta lehenengo diskoa iaz kaleratu zuten. Aldi berean, Haritz Artolak, Bizardunak talde nafarrari ahotsa jartzen dio. Irlandar folk erradikala egiten dute. Bizarra utzita dago lazkaotarra, taldearen izenari ohore eginez.



R.P.S. Nº 19004 I.L.G.

kristalak barne

77

euro





diseinuzko mila eta bat betaurreko prezio berean

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

Eskaintza hau indarrean egongo da 09/12/13 I.a arte. Ezin daiteke beste eskaintza edo promozio batzuekin platu.



Irlandako musika entzuten hasi nintzen eta orain beste guztia kaka bat iruditzen zait.

Abesti zahar-zaharrak entzun, eta kantu horiek daukaten indarra eta letrak harrigarriak dira.

Denboran atzera egiteko gogoia ematen du eta basapizti batean bihurtu.



Bizarrarekin ikusten dugu azkenaldian Haritz Artola lazkaotarra. Egunkari batean ikusitako argazki batetik atera dugu pista: Bizardunak musika taldeko kidea da Artola. 9 nafarrek eta lazkaotar batek osatzen duten taldea da Bizardunak, irlandar folk musika egiten dute. Brigada Criminalesko kide ohia da talde berriko abeslarietarikoa bat.

Fiachras musika taldearen bidez izan du harremana Artolak Bizardunarekin. Irlandar ikutuko musika egiten duen Fiachrasek ere. Lazkaotarrak berak kontatu digu nola sortu zen harremana: "kontzertu batean, Cabeza Fuego, Bizardunak taldeko perkusioarekin topo egin genuen. Komentatu zidan ea beraiekin abestu nahi nuen. Eta oso ondo".

Taldearen izenari ohore eginez, bizarra utzi du Artolak. "Lehen, bi hilabetean behin, bizarra eta ilea moztzen nuen, beraz ez zait gogorra egin. Orain 6 hilean behin txukundu bat ematen diot baina taldeak Bizardunak deituta, bizarririk uzten

ez badugu... Taldekiren bat kexatu da, Bizardunak ez zirela deitu behar...", dio lazkaotarrak.

Irlandar musika

Irlandar musika dute erreferentziatzen Fiachras eta Bizardunak taldeek. "Bizardunak folkagooa da eta Fiachras, rockerogooa", dio Artolak.

Baina nolatan Irlanda aldeko musika? "Hango musika entzuten hasi ginen eta orain beste guztia kaka bat iruditzen zait. Abesti zahar-zaharrak entzun, eta kantu horiek daukaten indarra eta letrak harrigarriak dira. Denboran atzera egiteko gogoia ematen dit, basapizti batean bihurtu. Eragin rockeroak hartu beharrean, Niko Etxart hartzen dut adibidez".

Adinarekin, musika gustuak aldatzen direla esaten da. Eta Artolaren kasuan, horrek ere izan omen du eragina. "Bai, adinak ere badauka zerikusia, baina Aldanondo eta biok asperuta geunden beti berdinduz jotzen. Aldaketa behar ge-

nuen. Instrumentu gehiago sartu, jende gehiagorekin jo... parrandak berdinduz edo handiagoak izaten dira baina lasaiago bezala hartzen dugu", aitortu du. The Pogues taldea adibidez, oso gustuko du. "Jainkoak ez baina urruti ez dabilta niretzat. Country amerikarra ere bai. Hori adinarekin hasi naiz entzuten. Duela 10 urte inork esango balit musika hori entzungo nuela. Niretzako zentzurik ez zeukana da, inondik inora, 40 urterekin, punk musika jotzen aritzea. Ez nintzen ikusten 40 urterekin gitarra hartu eta istiluak botatzen. Musika hau, bizi guztian jotzeko musika bat da. 60 urterekin, musika hau jotzen ikusten naiz, eserita igual. Irlandako tabernaren batean? Hala da, han dena horrela ikusten da".

Bi taldeak uztartuz

Jende eta instrumentu gehiago dituzten taldeak dira biak ere. Bizardunak taldean, teknikoarekin, hamar lagun dira; Fiachrasen, zazpi. "Orain Lazkaoko neska

batekin harremanetan ari gara, duo batzuk egiteko. Beraz, zortzi ere izan gitezke".

Disko bana ere kaleratu dute, eta abestiak egiten jarraitzen dute.

Bi taldeak uztartzen saiatzen da. Asteburu batean batekin eta bestean bestearekin. Gertatu izan zaio bi taldeekin gau berean kontzertua edukitzea. "Saiaitzen gara egun berean kontzerturik ez izaten baina koinziditzen baldin badu, normalean beti dago moldatzea: adibidez, talde batekin, lehenengo jotzea eta bestearekin azkena. Azken batean, Euskal Herria oso txikia da eta 2 ordutan punta batetik bestera joan gaituzke. Entsaiaitzeko, astean behin Iruñeara joaten naiz eta Fiachrasekin Lazkaon bertan entsaiatzen dugunez, arazorik ez dago".

Euskaraz ondo

Bi taldeen izpiritua oso antzekoa dela dio lazkaotarrak. Euskal folk erradikala deitu izan dio Bizardunak taldeak: "Bizardunak-ekoek

abesteko deitu zidatenean, letrak-eta dena eginda zeuzkaten. Letrak, PNV-ren aurka, Nafarroako Foruen alde, Santa Cruz apaizaren kondairak kontatzen dira, 1978ko Sanferminetan hildako Germani buruzkoa... Bigarren diskorako ari gara denon artean gehiago egiten. Fiachrasekoak ez dira hain zuzenak. Fiachraseko musika eta letrak, Aldanon-dok eta biok egiten ditugu”

Bizardunak taldeak atera berria du diskoa. “Lau abesti, taldearenak eta beste bost, Irlandako bost abesti tradizional, baina letra euskaraz jarrita. Lapurtutakoak dira. Ez dira itzulpenak”, dio Artolak.

Euskaraz kantatzen dute gehienbat. “Fiachrasen, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez. Bizardunak-en, ia dena euskaraz eta abesti bat dago erdaraz. Ondo uztartzen dira euskara eta musika irlandarra. Nik uste nuena baino hobeto. Oso ondo gelditzen da. Txukun, kurioso. Euskararekin dagoen arazoa da, musika gutxi entzun dela euskaraz. Folk irlandarrik, batere ez. Brigadan jotzen nuenean, kantuak euskaraz egitea kosta egiten zitzaidan, 80eko hamarkadako euskal rock erradikala, dena erdaraz entzun nuelako. Idazten hasi eta dena erdaraz ateratzen zitzaidan, nahiz eta nire bizitzaren %80a euskaraz egiten dudan. Entzuten duzunaren arabera dago hori. Horrelako folka ez erdaraz, ez euskaraz entzun ez dugunez, errazago ateratzen zait euskaraz, buruan ez baitaukat aurreritziarik eginda. Euskaraz ateratzen zait. Bizardunak-erako, bi abesti



Brigada Criminaletik Fiachrasera

2006. urtean Brigada Criminal taldearekin bukatzeko erabakia hartu zutenetik, Haritz Artola ez da geldirik egon. “Buruak aldaketa eskatzen zidan”, dio Haritz Artolak. Aitor Aldanon-dorekin batera, Fiachras taldea sortu zuten, beste hiru bergararrekin batera. Musika suabeagoa egiten dute, eta beste musika instrumentu batzuk ere sartu dituzte. Besteak beste, akordeoia eta klarinetea. Lazkaon entseiatzen dute. Izenari buruz galdetuta, musikaren ildotik jarraituz, Irlandako Jainko baten izena omen da: lorategi edo basoen jainkoa.

Kontzertuak

Uda bete-betea dute bai Fiachras eta bai Bizardunak taldeek. Fiachras taldeak adibidez, asteburu honetan, bi kontzertu izango ditu. Bata, uztailaren 4an, Ordiziako Gaztetxean, gaueko 11etan; eta bestea, uztailaren 5ean, Euskal Herria Zuzenean jaialdian, Heletan, iluntzeko 8etan.

atera zaizkit dagoeneko, batiere behartu gabe, natural. Ea gehiago izaten diren”.

Inspirazioa

Abesti tristeagoak edo alaia-goak sortzea, Espainiako selekzioek edo Espainiako

kirolariek egiten dutenaren arabera omen dago. “Inspirazio gehiena, Espainiako selekzioak, edozein kirol-tan zer egiten duen, eragin handia du zein abesti klase atera behar dudan. Galtzen dutenean, erabat inspiratuta. Espainiak Eurokopa irabazi zuenean? Oso gaizki. Rafa Nadalek zer egiten duen... irabazten badu, erabat tristontziora aterako zait eta galtzen baldin badu, poztasunarekin. Momentu hori da nire eragin nagusia”.

Irlandar musikaren eraginari eusteko, Irlanda alde-ara urtero, bidaiatxoren bat egiten dute. “2003tik, urtero, bidaiaren bat egin izan dugu. Normalean gabonetan joaten gara. Eragina mantentzeko, urtean behin bidaia bat egitea komeni da. Mentalki, pilak kargatzeko merezi du. Irlandara joan eta Espainia galtzen ikusiz, kontzertu bat jo, hori izugarria da. Eta irabazten baldin badu, balada pesimista batzuk atera eta aurrera”, azpimarratu du.

Irlandar folka eta euskara oso ondo uztartzen dira. Nik uste baino hobeto. Oso ondo gelditzen da. Txukun, kurioso.

Lazkao

Maizpideko Udako ikastaroetako ekitaldiak

Uztailak 3, osteguna:

19:00etan: Idiazabalgo herri kirol taldearen saioa, plazan.

Uztailak 7, asteartea:

22:00etan: Goierriko bertsolari gazteak: Julen Agirre, Ainhoa Mujika, Odei Lopez, Gorka Maiz, Joseba Agirrezabala eta Germa Urteaga. Gai jartzen, Inaxio Usarralde. Plazan.

Uztailak 9, osteguna:

22:00etan: Drindots musika taldea, plazan.

Uztailak 14, asteartea:

22:00etan: Beasaingo Aurtzaka dantza taldea. 'Goierriko dantzak' ikuskizuna. Plazan.

Uztailak 16, osteguna:

22:00etan: Ez Dok Hiru Bikoteatro taldearen 'Euskara-zetamol' antzezlan, Areria zinema-aretoa.

Uztailak 21, asteartea:

22:00etan: Petti kantaria, plazan.

Uztailak 23, osteguna:

18:00etan: TrikiBERTSOPOTEOA: Endika Igartzabal eta Gorka Maiz bertsolariak eta Joseba Iztueta eta Ibon Maiz trikitilariak. Lazkaoko tabernetan hasi eta Maizpideko jangelan bukatu.

Aztiria

Santa Marina jaiak

Uztailak 17, ostirala:

18:00etan: Kanpai joaldia eta etxafuego jaurtiketa.

18:30etan: Gaztetxoentzat jokoak eta txokolate jana.

19:00etan: Bola eta toka auzotarrentzat.

21:00etan: Auzo afaria Aztiri erretegian, Legazpi taldeak alaiturik.

Uztailak 18, larunbata:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Aztiriko XIV. Patata tortilla lehiaketa.

Ondoren: Salda, pintxo, patata tortilla eta ardo banaketa plazan, 'Katain eta Eguskitza' trikitilariak alaiturik.

16:30etan: IV. Helduen eta gazteen arteko futbol partida Gainzabal zelaian.

18:30etan: Idi-proba erakustaldia: Legazpiko Arizti eta Legazpiko Julian Telleriaren idi arteko norgehiagoka.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa.

Arratsalde osoan: Trikitilariak.

23:00etan: Kuluxka taldea.

Uztailak 19, igandea:

10:00etan: Goiz eresia Gabiriako txistulariekin.

11:00etan: Aztiriko V. mendi lasterketa.

12:30etan: Gabiriako Goruntz dantza taldearen saioa.


13:00etan: 'Katain eta Eguskitza' trikitilariak alaiturik, mendi lasterketaren sari banaketa.

18:00etan: Trikitilariak arituko dira kioskoan.

18:30etan: Herri kirol erakustaldia: Azurmendi eta Ugarteburu aizkoran; Larrarte ahizpak trontzan eta Goenatxo harri jasotzen.

19:00etan: Gipuzkoako bola txapelketa.

Ilundu arte, trikitilariak ibiliko dira.



LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**
ERAKUSKETA:
 Ezkiaga Pasealekua z/g
 ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
 Salbatore Industrialdea
 ☎ 943 88 60 70
BEASAIN



MENDIZABAL
 abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena
 686 325 511- Juan Antonio
 686 301 313- Maria Luisa
 www.baserrikoHaragia.com

Mendizabal Baserría
 20.248-Aramia (Gipuzkoa)



**Zatoz Zientziaren
 aurpegi alaienaren bila!**

gizarte ekintza
 hezkuntza

www.miramon.org
 ☎ 943 01 24 78
 DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?
 www.kutxa.net

kutxa

Segura

Erdi Aroko I. Aste kulturala

Uztailak 13, astelehena:

19:00etan: 'Segura bere erroetan murgilduz' DVD-aren aurkezpena. Ardixarra Etxean.

Uztailak 14, asteartea:

19:00etan: 'Seguraren historiaurrea'. Hizlaria: Jose Antonio Mujika, Aranzadi Zientzia Elkarteko eta EHUko irakaslea. Ardixarra Etxean.

Uztailak 15, asteazkena:

19:00etan: 'Herria sortu aurreko aztarnak eta hirigintzaren eboluzioa' Hizlaria: Alfredo Moraza, Aranzadi Zientzia Elkartekoa. Ardixarra Etxean.

Uztailak 16, osteguna:

19:30ean: 'Landarbaso abesbatza'. Kutxak sustatutako ekintza. Komentuan.

Uztailak 17, ostirala:

19:00etan: Linuaren prozesua, teoria eta praktikaren erakustaldia, plazan. Hizlaria. Jaione Isazelaia.

Uztailak 18, larunbata:

22:00etan: Alurr dantza taldearen 'Sua' ikuskizuna, plazan (Eguraldi txarra bada, Baratze pilotalekuan).

Erakusketa

Abuztuaren 1a bitartean, XVI. mendeko arropen erakusketa izango da ikusgai Ardixarra etxean, Iraultza Dantza Taldeko Ramon Garcia diseinatzailearen eskutik.

Beasain

Buztin eta zeramikako ikasleen lanen erakusketa

Uztailaren 3tik 12ra bitartean, buztin eta zeramikako ikasleen lanak ikusgai izango dira Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan. Ordutegia: lanegunetan: 19:00etik 21:00etara; jaiegunetan: 12:00etik 14:00etara eta 19:00etik 21:00etara.



Ataun

Organo barrokoaren Nazioarteko III. jaialdia

Ataungo San Martin elizako organo barrokoaren soinua entzuteko aukera izango da uztailako larunbatetan. III. edizio honetan, David Sagastume eta Daniel Oiarzabal ahots eta organo duoa entzun ahal izango dira eta baita ere Els Biessemans belgikar organista eta Conductus Ensemble talde gipuzkoarra, azken hori, Andoni Sierraren zuzendaritzapean.

Uztailak 4, larunbata:

20:00etan: David Sagastume, kontratenorea eta Daniel Oiarzabal organojolea.

Uztailak 11, larunbata:

20:00etan: Els Biessemans organojolea.

Uztailak 18, larunbata:

20:00etan: Conductus Ensemble. Alize Mendizabal organojolea eta Andoni Sierra zuzendaria.



kutxa

Ataun

Santa Ixabel Aian

Uztailak 2, osteguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Osoak Dantza Taldea.

Ondoren: Hamaiketakoa.

12:00etan: Mendizabal eta Zubeldia bertsolariak eta Santi eta Katxo trikitilariak.

14:00etan: Herri Bazkaria, bertsolari eta trikitilariekin. Ondoren Toka txapelketa.

23:30ean: Santi eta Katxorekin erromeria.

Uztailak 3, ostirala:

16:30ean: Ume jolasak eta Kidan magoa.

21:00etan: Herri afaria Joanito Mendizabal txiste kontalariarekin.

23:30ean: Skapando eta Laket.

Uztailak 4, larunbata:

11:00etan: Aiako Errotatxo martxan.

19:00etan: Sagardo eta sardina dastaketa eta Lazkao Txiki musika eskolakoen saioa.

20:00etan: Korrikako DVD-aren emanaldia.

21:00etan: Gazte afaria.

00:00etan: Kontzertua: Egurre eta Esne Beltza.

Uztailak 5, igandea:

12:00etan: Pelota partiduak.

17:00etan: XXIV. Dantzari Txikien txapelketa.

Ondoren: Herri kirolak.

Zaldibia

Gazte festak

Uztailak 2, osteguna:

19:00etan: Txupinazoa, trikipoteoa eta buruhandiak.

21:00etan: Ogitarteko afaria, plazan.

Ondoren: Filmina emanaldia: AHTren aurkako labur-metraia herrikoia.

00:00etan: Jonu bakarlariarekin, kantaldia.

Uztailak 3, ostirala:

11:00etan: Murala margotzea, Gaztetxean.

16:00etan: Kafe tertulia: borroka feminista.

18:30ean: Sasi-pilotarien finala.

20:00etan: III. Sagardo dastaketa plazan.

23:00etan: Kontzertua: 'Ze esatek' eta TZ.

Uztailak 4, larunbata:

12:00etan: Futbito finala.

Ondoren: Poteoa eta gazte bazkaria.

17:30ean: Kukaña txapelketa, errekan.

19:00etan: Denak mozorrotzera!

19:30ean: Kale animazioa, Zpeziz Mukakirekin.

21:30ean: Mozorro afaria eta jokoak.

00:00etan: Bakarleri gaua.

Altzaga

Artea elkarteko XV. sagardo lehiaketa

Uztailaren 5ean, izango da Artea elkarteko sagardo lehiaketa. Goizeko 10,30etan hasiko da eta probaketa-oren ondoren, bazkaria izango da elkartean bertan.

Sagardoa, elkarteko bazkideak direnek eraman ahal izango dute (bakoitzak, sagardo berdineko seinatutako botila, uztailaren 3a baino lehen). Edonork parte hartu dezake dastaketan, bazkide izan ala ez, eta bertan parte hartzeak bazkaltzeko izena ematea ekarriko du berarekin. Irabazlea geratzen den sagardoa ekarri duen bazkideari garaikurra eman eta bazkaria ordainduko zaio.

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ESKOLA LAGUNTZA - TAILERRAK
UNIBERTSITATE MAILA
INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

**SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA**

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

IBAI ONDO
ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Ormaiztegiko Mendizabal-erdikoa baserrikoak, 1942. urte inguruan

Ander Iurritak utzi digun argazkian, Iurrita Apaolaza sendia agertzen da, gurasoak eta izan zituzten 6 seme-alabetatik 5 hain zuzen. Semeirik gazteena (Migel Angel) 1949. urtean jaio zen

Ezkerretik eskuinera: Roxario Iurrita, Joxe Mari Iurrita Jauregi (aita), Juanito Iurrita, Juanita Iurrita, Joxe Andres Iurrita, Joxepa Apaolaza Osinalde (ama, izatez Gabiriako Barretxe baserrikoa) eta bere besoetan Martin Iurrita.



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



izal ☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA



A SE PLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN


Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnacka 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate



ARGI EWM
OPTIKA ME

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argoitika.com

PRADA D&G VERSACE BURBERRY

reklamazioa



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

The advertisement features a large photograph of the storefront of Barandiaran Zeramikak at night, with the name illuminated in blue neon. To the right, there are three smaller inset photographs showing the interior of the store, which is well-lit and displays various ceramic and bathroom fixtures.

bertan duzu



JATETXEAK

ALTAMIRA - Ordizia	685 79 47 55
ARTZAIENEA - Beasain	943 16 31 16
AZTIRIA - Gabiria	943 73 36 22
BARTZELONA - Legorreta	943 80 62 06
CASTILLO - Olaberria	943 88 19 58
DOLAREA - Beasain	943 88 88 29
GUREGAS - Beasain	943 80 54 80
KIKARA LOUNGE - Beasain	943 88 62 34
MARISQUERIA KORTA - Gabiria	943 88 71 86
KUKO - Ormaiztegi	943 88 28 93
LAZKAO ETXE - Zaldibia	943 88 00 44
MANDIOA - Zerain	943 80 17 05
MANDUBIA - Beasain	943 88 26 73
MARTINEZ - Ordizia	943 88 06 41
MUJIKI - Idiazabal	943 18 73 19
MUJIKI - Mutilloa (Liemia)	943 80 16 99
OSTATU - Zerain	943 80 17 99
OSTATU - Zegama	943 80 10 51
OSTATU - Mutilloa	943 80 11 66
OTERRE - Gaintza	943 88 98 48
OTZURTEKO BENTA - Zegama	943 80 12 93
TXINDOKI - Ordizia	943 88 40 49
URKIOLA - Beasain	943 08 61 31
ZEZILIOENA - Olaberria	943 88 58 29

JULKI GOZOTEGIA - Beasain	943 88 82 37
UNANUE GOZOTEGIA - Ordizia	943 88 15 51

SAGARDOTEGIAK

OTATZA - Zerain	943 80 17 57
TXIMISTA - Ordizia	943 88 11 28
OIHARTE - Zerain	680 17 12 91

PENTSIOAK

ITXUNE ** - Ormaiztegi	639 23 88 89
ZEGAMA ** - Zegama	943 80 10 51
ZEZILIOENA ** - Olaberria	943 88 58 29

NEKAZALTURISMOAK

ALDARRETA - Ataun	943 18 03 66
ARRIETA - HAUNDI - Zegama	943 80 18 90
BARTZELONA - Legorreta	943 80 62 06
BORDA - Olaberria	943 16 06 81
IRIZAR AZPIKOA - Zaldibia	943 88 77 18
LAZKAO ETXE - Zaldibia	943 88 00 44
LIZARGARATE - Lazkao	943 88 19 74
OIHARTE - Zerain	680 17 12 91
ONDARRE - Segura	943 80 16 64
PAGORRIAGA - Beasain	943 58 20 71
TELLERINE - Zerain	943 58 20 31

HOTELAK

CASTILLO *** - Olaberria	943 88 19 58
IGARTZA - Beasain	943 08 52 40
GUREGAS ** - Beasain	943 80 54 80
SALBATORE * - Beasain	943 88 83 07
ZEPAI * - Idiazabal	943 18 71 98

LANDETXEAK

LIERNIGARAKOA - Mutilloa (Liemia)	943 80 16 99
ORUE - Mutilloa	943 80 19 00

ATERPETXEAK

ZERAIN	943 80 15 05
--------	--------------

KOMERTZIOA

ORDIZIAN ELKARTEA - Ordizia

ZER. TURISTIKOAK

ALARPE - Zaldizko Ibilbideak	943 88 05 76
ALDABE - Gida Zerbitzuak	943 80 15 05



Compromiso
a Calidad Turística

Kalitate turistikoarekin konpromisoa



goierri
bertan duzu

publiack

GOIERRI PARKE NATURALA ETA KULTURALA

- ☞ GAZTAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA IDIAZABAL
- ☞ ELIKADURA ETA GASTRONOMIAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA
- ☞ GOIERRIKO INTERPRETAZIO ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA
- ☞ ZUMALAKARREGI MUSEOA ORMAIZTEGI
- ☞ ERTAROKO INTERPRETAZIO ZENTRUA SEGURA
- ☞ EGURRAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA ZEGAMA
- ☞ PARKE KULTURALA ZERAIN
- ☞ BURDINAREN MENDIA - AIZPEAKO MEATEGIA ZERAIN
- ☞ URAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA ZALDIBIA



GIPUZKOA

EUSKADI ... made in



GOIERRIKO TURISMO AGENTZIA

www.goierriturismo.com